

ETXEKO TRATU TXARREN BIKTIMENTZAKO
BABES ETA ETXEBIZITZA BALIABIDEAK
HOBETZEKO PROGRAMA
(2004-2005)

Erakundeen arteko Akordiorako Jarraipen Batzordea

*Programa para la mejora de los recursos de acogida y vivienda para las víctimas de maltrato doméstico.
Comisión de Seguimiento del Acuerdo interinstitucional.*

SARRERA

Etxeko tratu txarren biktimei babes- eta laguntza eskaintzeko funtsezko bitarteko gisa sortu dira babes-etxeak eta babes-zentroak, izan ere, etxeko tratu txarrak jasan dituzten biktime askok beren bizilekua utzi behar izaten dute, eta babes-etxe edo -zentroetan aurkitzen dute beharrezkoa duten laguntza eta aldi baterako ostaturia.

Illo horretan, gure Erkidegoan etxeko tratu txarren biktimei laguntzeko martxan jarri den babes-bitarteko nagusia dira babes-etxeak: intimitatea eta pribatutasuna ziurtatzen da bertan eta normalizazioa eta gizarteratzea ahalbidetzeko eta autonomia pertsonala indartzeko egokiak dira.

Gure Erkidegoan mota desberdinetako babes-etxeak daude: alde batetik, erakunde pribatuen mendekoak eta, bestetik, Foru Aldundiek eta Udalek kudeatutako erabilera anitzeko 54 babes-etxe sortu dira, berariaz, etxeko tratu txarrak jasan dituzten biktimei laguntzeko. Jarraian, Foru Aldundiaren babes-etxeen eta Udalek kudeatutako babes-etxeen lurraldekako banaketa ikus daiteke:

ARABA-ÁLAVA	Vitoria-Gasteiz ¹	14	Laudio	1
BIZKAIA	Bilbao	7 ²	Barakaldo ³	1
	Basauri	3 ⁴	Busturialdea	1
	Ermua	1	Galdakao	1
	Sestao	1	Santurtzi	1

¹ Bi Arabako Foru Aldundiaren mendekoak eta gainerakoak Gasteizko Udalaren mendekoak.

² Bat Bizkaiko Foru Aldundiaren mendekoa eta gainerakoak Bilboko Udalaren mendekoak.

³ Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko etxea da.

⁴ Bat Bizkaiko Foru Aldundiaren mendekoa eta gainerakoak Basauriko Udalaren mendekoak.

GIPUZKOA	Andoain	1	Asteasu	1
	Arrasate	1	Azpeitia	1
	Beasain	1	Donostia-San Sebastián	5
	Eibar	1	Elgoibar	1
	Hernani	1	Irun	2
	Lasarte-Oria	1	Pasaia	1
	Renteria	1	Tolosa	2
	Usurbil	1	Zarautz	1
	Zumarraga	1		

Aipatutako babes-etxe guztiez gain, berehalako larrialdiei erantzuteko beste hainbat zerbitzu eskaintzen dira. Zerbitzu guztien helburu nagusia da gizarte-zerbitzuek funtzionatzen duten ordutegi arruntetik at gertatzen diren behar larriei —segurtasuna eta ostatu-beharra— berehalako erantzuna ematea.

Gasteizen, esate baterako, Larrialdietako Gizarte Zerbitzua eskaintzen dute. Lehen arretak jasotzen dituzte biktimek bertan eta, ondoren, babes-establezimenduetara eramaten dituzte. Arabako Lurralde Historiko osoan eskaintzen da aipatutako zerbitzua eta goizeko 8:00etatik gaueko 22:00etara ateak zabalik ditu; gainerako orduetan, berriz, 945-13.44.44 telefonoaren bidez funtzionatzen du.

Bizkaiari dagokionez, Bilboko Udalak Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzua eskaintzen du: bertan ematen zaizkie lehen-arretak eta behar duten laguntza tratatu txarren biktimei. Bilboko Udalak eskaintzen duenak ere Gasteizko zerbitzuaren antzera funtzionatzen du, hau da, goizeko 8:00etatik gaueko 22:00etara zabalik ditu ateak; gainerako orduetan, berriz, 94-470.14.49/60 telefonoaren bitartez funtzionatzen du. Aipatutako zerbitzuaz gain, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailak Larrialdietako Zerbitzu bat eskaintzen du: gizarte-zerbitzuen lan-ordutegi arruntetik kanpo laguntza eta ostatua behar duten emakumeei babesa ematen zaie Larrialdietako Zerbitzu honetan. 112 (SOS DEIAK) telefono-zenbakia da aipatutako zerbitzuarekin harremanetan jartzeko modua.

Gipuzkoan, zenbait ostalaritza-toki eta ostatukin egindako hitzarmenari ezker, ostatua eskatzen duten emakumeentzako bada martxan babes-zerbitzua, gizarte-zerbitzuek funtzionatzen duten ordutegi arruntetik kanpo. Aipatutako zerbitzu horrekin harremanetan jartzeko 112 (SOS DEIAK) telefono zenbakira ere jo daiteke. Gainera, behar larriei erantzuteko babes-zerbitzu berria sortuko dute aurki.

Babes-baliabideen egoera aztertzeaz gain, etxebizitza-esparrutik jasotako erantzuna azertu behar da. Sarritan, babes-etxebizitzak ez dira erabiltzen aldi baterako babes- eta ostatu-behar larriei erantzuteko. Zenbait kasutan, mota horretako beharrik ez duten emakumeei laguntzeko erabiltzen dira. Zentzu horretan, indarrean dagoen araudiaren arabera⁵, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak zuzenean kudeatzen dituen sustapenetan dagokion Erkidegoko Foru Aldundiaren eta Udalen aldeko erreserba bat egin ahal da (nahi izanez gero), hartara, aipatutako Aldundiek eta Udalek etxebizitza horiek eskuratu eta gizarteak bazterturik dituen pertsoneri edo etxeko tratu txarren biktimei laguntzera bideratzeko. Bestalde, jabetzako etxebizitza eskuratzeko aukera eskaintzen duten sustapenei dagokienez, nahitaez egin behar da erreserba bat, eta etxebizitza horiek beren kargura seme/alaba adin txikikoak dituzten guraso bakarreko unitateei eskaini; multzo horretan sartuko lirarteke etxean tratu txarrak jasan eta horrelako unitatea osatzen duten emakumeak.

Ikus daitekeenez, ahalegin eta lan handia egiten ari gara gure Erkidegoan babes-bitartekoak eta biktimentzako etxebizitzak sortzeko. Hala ere, denbora igaro da aipatutako zenbait baliabide martxan jarri zirela eta, ildo horretan, 2002ko azaroaren 22an *Etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako segurtasun-plana (2002-2004)* onetsi zenean, egoki iritzi zitzaion hobetu ahal ziren alderdiak aztertzeari; egoki iritzi zitzaion, halaber, tratu txarren biktimei arreta integrala eta kalitatezkoa eskaintzeko neurriak lantzeari eta aurkezteari.

Gauzak horrela, Erakundeen arteko Talde Teknikoko Gizarte Zerbitzuetarako Azpibatzordeak —Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko, hiru Foru Aldundietako eta Eudeleko langile teknikoek osatutako eta Emakundek koordinatutako Azpibatzordea— *Etxeko tratu txarren biktimentzako babes- eta etxebizitza-baliabideak hobetzeko Proposamena* aurkeztu zuen Jarraipen Batzorde honen aurrean.

Xede dugun esparruan hobetu ahal diren alderdiak barne hartzen ditu aipatutako proposamenak, eta jarraian adierazi dira laburbilduta:

⁵ 2002ko ekainaren 12ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuarena eta babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzkoa (2002ko ekainaren 28ko EHAA).

- Etxeko tratu txarren biktima izateaz gain bestelako arazoak dituzten biktimei erantzun egokia emateko baliabide berriak sortzeko eta/edo egungo baliabideak egokitzeko beharra: drogazaletasun aktiboa eta adimen-patologia (fase akutuan eta/edo estaldura anbulatorio egokirik gabe) duten emakumeak; ezintasun fisikoen ondorioz norberaren autonomia mugatuta duten emakumeak; sentimen--ezintasunak dituzten emakumeak; drogazaletasun arinak dituzten emakumeak; egoera irregularrean bizi diren emakume etorkinak; prostituzioan lan egiten duten emakumeak; beren ardurapean bizi diren eta bizikidetza-unitatea osatzen duten mendeko pertsonak (ez seme/alabak) dituzten emakumeak; arrisku handiko egoeran bizi diren emakumeak, eta abar.
- Mugikortasun geografiko handiagoa ahalbidetzeko beharra, hau da, bizi diren udalerrira utzi nahi edo uztea nahiago duten emakumeei beste udalerrietako babes-baliabideak eskuratzeko aukera ematea.
- Babes-baliabiderik ez duten gure Erkidegoko zonetan babes-baliabideak hornitzeko beharra.
- Babes-baliabideak eskaintzearekin batera, laguntzeko pertsonala eskaintzeko beharra.
- Larrialdietako zerbitzu gehiago sortzea edo gaur egun eskaintzen direnak egokitzea, hartara, larrialdien aurrean aldi baterako aterpetheen eta establezimenduen erabilera egokia ziurtatzeko.
- Alokairuko etxebizitza bat ordaintzeko baliabide ekonomikorik eduki ez eta ingurune sozial normalizatu batera itzultzeko modurik ez duten emakumei erantzun egokia emateko beharra.
- Alokairuko etxebizitza bat ordaintzeko baliabide ekonomikoak edukita ere, alokairuko etxebizitza publikoaren eskaintza eskasa delako etxebizitza eskuratzeko ezinezkoa duten emakumeentzako konponbideak aurkitzeko beharra.

Hobetu ahal diren alderdi horiek guztiak kontuan hartuta, Euskal Herri Administrazioek 2004-2005 bitartean bete beharreko eta martxan jarri beharreko helburuak eta ekintzak adierazi dira ondorengo orrietan. Eskumeneko erakunde bakoitzari dagokio, ondoren, aurrekontuetan baliabide ekonomikoak esleitzea aurreikusitako ekintzak gauzatu ahal izateko. Ekintzen jarraipena eta ebaluazioa Erakundeen arteko Akordiorako Jarraipen Batzordeak egingo ditu, beharrezkoak diren neurriak hartuz.

Emakunde, 2004ko irailaren 27a

HELBURUAK ETA EKINTZAK

1. helburua

Babes-baliabideen antolakuntza eta funtzionamendurako irizpide homogeenok zehaztea, Euskadiko Autonomia Erkidego osoan kalitatezko zerbitzua bermatzeko.

1.1. ekintza

Babes-baliabideen antolakuntza eta funtzionamendurako baldintzak eta irizpideak arautuko dituen araudi bat landu behar da, hartara, Euskadiko Autonomia Erkidego osorako kalitatezko zerbitzua ziurtatzeko⁶.

Erakunde arduraduna: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

2. helburua

Babes-etxerik ez dagoen zonetan babes-etxeak sortzea.

2.1. ekintza

Babes-etxeak sortzeko baliabideak jarri, Gizarte Zerbitzuetarako Legeak ezarritako eskumenen banaketarekin, hura garatzeko ararudiarekin eta erakunde arteko akordioekin bat etorri.

Erakunde arduradunak: Udaletxeak (Eudel) eta Foru Aldundiak.

2.2. ekintza

Babes-etxeak sortu eta mantentzeko diru-laguntzak ezarri, edo kasuan kasu, daudenak gehitu. Guzti hori, Gizarte Zerbitzuetarako Legeak ezarritako eskumenen banaketarekin, hura garatzeko ararudiarekin eta erakunde arteko akordioekin bat etorri.

Erakunde arduradunak: Foru Aldundiak.

⁶ Araudi horretan kontuan hartu beharko dira, besteak beste, honako alderdi hauek:

- a) Babesa eta aldi baterako ostatuaren behar larria edukita nora jo ez duen eta etxean tratu txarren biktima izan den emakume orok du babes-baliabideak erabiltzeko eskubidea, emakumearen ezaugarri pertsonalak eta sozialak edozein izanik.
- b) Babes-etxeen artean mugikortasun geografikoa ziurtatzeko mekanismoak eskaini behar dira, bizi diren udalerrria utzi nahi edo uztea nahiago duten emakumeei beste udalerrietako babes-baliabideak erabiltzeko aukera emateko.
- c) Oztopo arkitektonikoak eta komunikaziozkoak desagerrarazteko aurreikuspenak, bai eta segurtasun-sistemak (telefonoak, tele-alarmak, bideo-kamerak, eta abar) eta akonpainamendu- eta laguntza-funtzioak hobetzeko aurreikuspenak.
- d) Gaur egungo larrialdietako baliabideak egokitzeko aurreikuspenak, hartara: larrialdian dagoen edozein biktimak erabili ahal izateko; eguneko 24 orduetan lehen-arretarako langile espezializatuak akonpainamendu-zerbitzua eta segurtasun-neurriak eskaintzea; eta gainerako babes-baliabideak eskuratzeko zubi izatea.

2.3. ekintza

Etxebizitzari buruzko araudiak ziurtatu egin behar die Foru Aldundi eta Udalei babes ofizialeko etxebizitzak eskuratu eta etxeko tratu txarren biktimentzako babes-baliabide gisa eskaintzeko aukera.

Erakunde arduraduna: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

2.4. ekintza

Babes ofizialeko etxebizitzak eskuratu eta etxeko tratu txarren biktimentzako babes-baliabide gisa eskaintzeko aukera dutela jakinaraziko zaie Udalei.

Erakunde arduraduna: Eudel.

3. helburua

Gaur egungo babes-etxeak egokitzea, hartara, oztopo arkitektonikoak eta komunikaziozkoak desagerrarazteko, segurtasun-sistemak hobetzeko eta erabiltzaileei akonpainamendu-zerbitzuak eta laguntza-zerbitzuak eskaintzeko.

3.1 ekintza

Babes-etxeetan oztopo arkitektonikoak eta komunikaziozkoak desagerrarazteko, akonpainamendu- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzeko, eta segurtasun-sistemak hobetzeko baliabideak jarri. Guzti hori, Gizarte Zerbitzuetarako Legeak ezarritako eskumenen banaketarekin, hura garatzeko ararudiarekin eta erakunde arteko akordioekin bat etorriz.

Erakunde arduradunak: Udaletxeak (Eudel) eta Foru Aldundiak.

3.2 ekintza

Diru-laguntzak ezarri edo daudenak gehitu gaur egungo babes-etxeen segurtasun-sistemak hobetzeko eta erabiltzaileei akonpainamendu- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzeko. Guzti hori, Gizarte Zerbitzuetarako Legeak ezarritako eskumenen banaketarekin, hura garatzeko ararudiarekin eta erakunde arteko akordioekin bat etorriz.

Erakunde arduradunak: Foru Aldundiak.

3.3 ekintza

Babes-baliabideetan oztopo arkitektonikoak eta komunikaziozkoak desagerrarazteko diru-laguntzak jarri edota daudenak gehitu.

Erakunde arduraduna: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

4. helburua

Lurralde Historiko bakoitzean babesa eta aldi baterako ostatuaren behar larria duten biktimei laguntzeko zerbitzuak ziurtatzea: eguneko 24 orduetan lehen-arreta eskaintzeko langile espezializatuak egongo dira eta gainerako babes-baliabideak eskuratzeko zubi izatea lortu behar da.

4.1. ekintza

Gaur egun eskaintzen diren larrialdietako baliabideak egokitzeko behar diren bitarteko materialak eta pertsonalak eskaini behar dira.

Erakunde arduradunak: Foru Aldundiak eta hiriburu-udal-udalak (Eudel).

5. helburua

Drogazaletasun aktiboa duten emakumeei edo adimen-patologia eduki eta estaldura anbulatorio egokia ez duten emakumeei laguntzeko eskaintzen diren babes-bitartekoak hobetzea.

5.1. ekintza

Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluari arazoaren berri eman ondoren, berari dagokio erantzun egokia ematea.

Erakunde arduradunak: Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, Foru Aldundiak, eta Eudel.

6. helburua

Etxean tratu txarrak jasan dituzten biktimei etxebizitza eskuratzeko bidea erraztea.

6.1. ekintza

Etxebizitzaren esparruan indarrean dagoen araudia egokitu beharko da, eta etxean tratatu txarrak jasan dituzten biktimei lehentasuna eman funts publikoen bitartez finantzatutako etxebizitzak eskuratzeko orduan.

Erakunde arduradunak: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila, eta Udaletxeak (Eudel).

6.2. ekintza

Etxean tratatu txarrak jasan dituzten emakumeei behar dituzten etxebizitza-baliabideak ziurtatzeko helburuarekin, erakundeen artean lankidetzan aritzeko formulak landuko dira.

Erakunde arduradunak: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila, Foru Aldundiak, eta Udaltxeak (Eudel).